



Esp. kodea: 2024YHIT0004

Gaia: 2024 LANKIDETZA HITZARMENA

ALKATEAREN EBAZPENA
N24/01847

Ibai-Arteren 2024ko ekintza plana onartu eta hitzarmena sinatzea

2009. urtean hasi zitzaion Arrasateko Udala eta Ibai-Arte Merkatarien Elkartearen arteko lankidetza jardunari, bertako merkataritza suspertzeko helburuarekin.

Lankidetza hori oinarritu zen Jaurlaritzaren Merkataritza Kabinetearen orduko antolaketari, besteak beste, bultzatzen duena merkatarien elkarteek zuzenean kudeatzea sustapen planak, beti ere, Udalaren laguntzarekin. Eusko Jaurlaritzaren antolaketa eta dirulaguntzak aldatzen joan diren heinean, Udala eta Ibai-Arte merkatarien Elkartearen arteko hitzarmena egokitzen joan da.

Ibai-Artek aurkeztu dio Arrasateko Udalari 2024ko Ekintza Plana, Udalak onartu dezan, eta ekarpen ekonomiko bat egin dezan hori burutu ahal izateko laguntzaile gisa. Hau da aurrekontua:

IBAI - ARTE AURREKONTUA 2024			
GASTUAK		SARRERAK	
Merkemerkaua otsaila	5.800,00	Elkartekideen kuotak	16.560,00
Martxoak 8	15,00	Arrasateko Udala- Urteko Ekintza Plana	31.000,00
Korrika	425,00	Eusko Jaurlaritza -Hirigune	30.000,00
Ardo Eguna	4.600,00	Eusko Jaurlaritza- OTC	40.000,00
Gozatu Arrasatez	3.000,00	Rural Kutxa-Arrasate Txartela	4.000,00
Mariatxi Festa	4.100,00	Arrasateko udala - Arrasate Blues	20.000,00
Elkartasun Eguna	1.900,00	Arrasateko Udala- Gabonetako kanpaina	20.000,00
20,50 eta 100 euroko hobarien zozketa	2.000,00	OTC beste elkarteak	5.400,00
Arrasate Blues	51.000,00	Black Arrasate	3.000,00
Udako ordutegia	0,00	Besteak	14.980,00
Udaberri udako merkemerkaua	5.200,00		
Merkataritza Berdearen Astea	3.000,00		
Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna	200,00		
Gau Beltza	2.100,00		
Mondrabember	700,00		
Black Arrasate	7.200,00		
Gabonetako kanpaina	28.000,00		
Digitalizazioa	8.000,00		
Arrasate irekia	0,00		
Besteak	2.600,00		
Debagoieneko Merkataritzaren	52.100,00		
Orokorrak	3.000,00		
	184.940,00		184.940,00

Kodea	N24/01847	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/uzt./02	CUDO	000.0055.AAA11MVL.R.Drb8	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11MVL.R.Drb8			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024YHIT0004

Gaia: 2024 LANKIDETZA HITZARMENA

Ibai Artek aurkeztutako ekintza plana aztertuta, jarduerak egoki ikusi dira Arrasateko Merkataritza sustatzeko, txikizkako merkataritza bultzatzeko eta sektoreko jarduerak aktibatzeke.

Azken urteetako formula jarraituz, horrela finantzatuko da ibai-Arteko 2024ko ekintza plana: aurkeztutako gastuen %50 diruz lagunduko da, 31.000 euroko aurrekontua bete arte. Laguntza honetatik kanpo geldituko dira beste erakunde batzuk finantzatutako gastuak eta Arrasateko Udalaren dirulaguntza zuzena daukaten ekintzak.

Ekimen bakoitzaren nondik norakoak “Ibai-arte Ekintza Plana 2024” dokumentuan daude azalduta.

Lankidetza aurrera eramateko, erakunde bien artean hitzarmen bat sinatzea proposatzen da, lankidetzaren xehetasunak lotzeko.

Udalaren zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez EBAZTEN DUT:

- **LEHENA.-** Ibai-artek aurkeztutako 2024ko ekintza plana ontzat ematea, eta udalaren lankidetza eskaintzea merkatarien elkarteari ekintza plan hori aurrera eramateko.
- **BIGARRENA.-** Ibai Arte merkatarien elkartearekin hitzarmena sinatzea (eranskina), 2024ko ekintza plana burutzeko, udal ekarpen ekonomikoa 31.000 eurotan finkatuko da eta 0700.481.431.00.00 (504) “Ibai-arte ekarpena” partidarekin finantzatuko da.
- **HIRUGARRENA.-** Ibai-arte merkatarien elkarteari jakinaraztea akordio hau.

Alkatea

Kodea	N24/01847	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/uzt./02	CUDO	000.0055.AAA11MVL.R.Drb8	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11MVL.R.Drb8			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				